

2. BALIO PROPOSAMENA

Balio proposamenari dagokionez, negozio-ereduaren funtsezko elementua da. Hau da bezeroei eskaintzen dieguna eta, oinarrian, konkistatu edo galdu egitea bideratuko duena, eta, ondorioz, gure negozioak aurrera egin ahal izatea edo ez. Honez gain, zein arazori erantzun diogun ere ondo zehaztu behar da puntu honetan.

Arlo honetan beraz, Ibiltzen enpresak zer eskainiko duen azaltzen dugu. Alde batetik, hirugarren adineko pertsonen laguntza teknikoaren salmenta eta beste alde batetik, zaintzaile zerbitzuak eskainiko ditugu (familia eta auxiliarren artean bitartekari lana). Azkenik, familiarrei orientabidea eta hitzaldiak ere emango dizkiegu.

Honela, hiru jarduera hauekin gizartearen azken urteetan gailendu den; eta demografiaren aldaketak oraindik eta gehiago eragingo duen hirugarren adinekoei bideraturiko beharrei erantzun bat ematea lortuko dugularik. Izan ere, azken urteetan hirugarren adinekoengan gailentzen diren gaixotasunen inguruan ez dago informaziorik eta zaintza kudeatzerakoan bakarrik edota laguntzarik gabe sentitzen dira. Beraz familia askok behar dutela laguntza identifikatu dugu bi aspektu hauetan eta horregatik erabaki dugu erantzun osatu bat emateko zerbitzu integral bat eskaintzea.

Gaur egun honelako zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzu orokorrak aurkitzen dira, baina Ibiltzen enpresaren ezberdintasuna arreta pertsonalizatu bat eskainiko dugula da. Hau da, familiarekin prozesuaren jarraipen bat egitea izango da gure berritasuna eta pertsonalizazioa. Hitzaldiak emanez, esku-hartze psikologikoa eskainiz eta banakako esku-hartze bat antolatuz.

Ibiltzen enpresak kalitate handiko zerbitzu integral bat eskainiko dio hirugarren adinekoei eta hauen familiei.